

Gurutze Gorriak eta OXFORD Language Schoolek hitzarmena sinatu dute, errefuxiatuei doako gaztelaniazko lana eta eskolak eskaintzeko Ukrainarrak Euskadin

- OXFORD Language Schoolek bere ikastetxeetako instalazioak lagatzeko konpromisoa hartu du, goizetan Ukrainatik joandako pertsonentzako doako gaztelaniazko eskolak hartzeko.
- Gainera, lan-poltsa bat sortuko da Oxford akademietako irakasle-taldearen barruan lan-irteera bat eskaintzeko.

2022ko apirilaren 5a. Euskal Autonomia Erkidegoko Gurutze Gorriak eta OXFORD Language School akademia-sareak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute. Hitzarmen horren bidez, bi erakundeek elkarrekin lan egingo dute migrazio-inpaktua murrizteko eta Ukrainako Gerraren ondorioz desplazaturako pertsonen integrazioa errazteko.

Azken asteotan, Gurutze Gorriak eta Oxfordek bilerak egin dituzte eta komunikazio zuzenean egon dira, Europa ekialdeko krisi humanitarioagatik lankidetzeta-plan bateratu bat ezartzeko. Plan horretan, berehalako bi laguntza-bide garatuko dira:

Alde batetik, OXFORD Language Schoolek bere **17 ikastetxeetako instalazioak lagatzeko konpromisoa hartu du, goizez Ukrainatik joandako pertsonentzako doako gaztelania-
eskolak hartzeko, gure kulturaren eta hizkuntzan integratzen laguntzeko.**

Bigarren lankidetzeta-bidea da enplegu-poltsa bat sortzea ingelesezko eta gaztelaniazko hizkuntza-eskakizun handia duten eta beren etxeak utzi behar izan dituzten eta gure herrialdea harrera-leku gisa aukeratzea erabakitzen duten Ukrainako irakasleentzat.

Natxo Ugarte Oxford Language Schooleko arduradunak azaldu duenez, "**Berehalako jardueraplan honen helburua da, batetik, lekualdatutako pertsonen lan-okupazioa konpontzea, eta, bestetik, goizetako aisialdiaren okupazioa erraztea, orain gehien behar dutena burua eta denbora okupatuta izatea baita**".

Estíbaliz Arnáiz Euskadiko Gurutze Gorriko presidentek eskertu egin du OXFORD Language Schoolekin sortutako aliantza, eta adierazi du "**elkartasuna ondo antolatuta egon behar dela, eta Ukrainako errefuxiatuen integrazioa hobetzeko eta errazteko sortutako akordioak euskal enpresa-sarearen konpromiso sozialaren isla direla**".

Maiatzetik aurrerako ikastaroak

Asmoa da apirilaren 4tik aurrera gaztelaniazko ikastaro horietan izena emateko epea irekitzea. Ikastaroak maiatzetik aurrera hasiko dira eta doakoak izango dira ikasleentzat.

"Ikastaroak mailen eta adinaren arabera banatzen saiatuko gara, eta gure asmoa da gaztelaniazko eskoletako irakasleak, hain zuzen ere, gaztelania asko menderatzen duten ukrainarrak izatea", azaldu dute Oxford Language Schooletik.

Hala nahi izanez gero, aurreinskripzioa Oxford Language Schoolekin harremanetan jarriz egin daiteke, 944 077 442 telefonoaren bidez, WhatsApp bidez 665 740 487 telefonoan, edo Oxford Language School hizkuntza akademietako edozein bisitatuz.

Lan-poltsa

Bestalde, **adostutako bigarren lankidetzeta-bidea Ukrainatik joandako pertsonen lan-irteera bat eskaintzea da. Prozesu hori Gurutze Gorriak eta Oxford Language Schoolek batera kudeatuko duten lan-poltsa baten bidez egingo da.** Beraz, Oxford Language Schooleko irakasle-taldean parte hartu nahi duten pertsona guztiek, eskatutako baldintzak betetzen badituzte, curriculumak bidali beharko dute helbide honetara: direccion@oxfordls.com.

Horretarako, beharrezkoa izango da irakasle-gaitasuna egiaztatzea, bai eta ingelesez edo gaztelaniaz dituen ezagutzak edo egiaztapenak ere.

Bi erakundeek uste dute akordio hori neurri "oso positiboa" dela, eta gizartearen babes oso zabala izatea espero dutela; izan ere, jarduera oso zehatzak eta berehalako ekintzak dira, neurri batean, Ukrainako krisiak eragindako migrazio-krisia arintzeko.

Álvaro García Serrano

Euskadiko Gurutze Gorriaren
Marka eta Komunikazio arduraduna

| +34 678 401 443

| alvaro.garcias@cruzroja.es

Iñáki Ugarte

Oxford Language School-eko arduraduna

+34 665 740 487 |

direccion@oxfordls.com |